

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Ipurua

FECHA: 15/11/2018

Departamento	Extracto	
Obrak	Bizilagun batek eskatu du arrapala bat eraikitzea Romualdo Galdos eta Argatxako Jardinen artean, gaur egun dauden eskailerak ordeztzeko.	Romualdo Galdos eta Argatxa lotzeko beharrezkoa den arrapalak ez luke indarrean dagoen irisgarritasun-araudia beteko.
Alkatetza	Ipurura 3 zenbakiko auzotar batek eskatu du zarataren aurkako panelak jartzea autopista-parean, ibilgailuek ateratzen duten zarata dela-eta.	Joan den otsailean, berriz ere idatzi bat bidali zitzaien Bidegiri eta Bide Azpiegituretako Departamentuari, eskatuz zarataren aurkako panelak eta segurtasunekoak jartzeko autobidearen zati osoan, Eibar parean.
Zerbitzuak	Salatu du Ipurua 3 zenbaki ostea zikinkeriaz eta sasitzaz josita dagoela. Kexu da alde hori ez delako garbitzen.	Ingurua ikuskatu ondoren, ikusi da bai 1 zenbakiaren ostea, bai 3 eta 5 zenbakiena garbi daudela. Hala ere, katastroan begiratu ondoren, jakinarazi da 1. zenbakiaren atzealdea bakarrik garbitu beharko litzatekeela, udal-jabetzakoa delako, baina ez 3koa eta 5koa, pribatuak dira-eta. Orain arte, lan hori , zati batean, Udalaren azpikontrata batek egiten zuen. Aurrerantzean, jabetzak egin beharko ditu lanok.
Zerbitzuak	Kexu da Argatxako Jardinetan belarra mozteak zikinkeria eragiten duelako beheko aldean, Romualdo Galdos inguruan. Esan du kimatzearen edo belar-moztearen informazio-kartelak ez direla behar besteko denborarekin jartzen.	Inguruan belar-sastrakak garbitu behar diren bakoitzean, kartel bat jartzen da bizilagunei abistatuz. Hau aspalditik egiten da horrela. Dena den, berriz ere arreta berezia jarriko da kontu honetan lorazainekin.
Obrak	Santa Ines 6 komunitateko ordezkariak dio planak daudela oinezkoen pasilloa 53 cm altxatzeko pegoretara sartzeko. Esan du bere komunitatea jarduera horren kontra dagoela.	Pegoren irisgarritasuna hobetzeko plan bat da. Aurreikusita dago egitasmoa 2020an idaztea.

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Ipurua

FECHA: 15/11/2018

Departamento	Extracto	
Obrak	Ubitxa 1 zenbakiko bizilagun batek eskatu du badenak jartzea edo, bestela, pasabide goratuak eraikitzea zenbaki horren parean dagoen zebra-bidean, ibilgailuak ez daitezen hain abiadura handian ibili.	Gune zaila da. Aztertzen ari da zebra-bide hori goratzeko aukera, eta, hala bada, 2020ko proiektuan sartuko da.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du piboteak jartzea Juan Antonio Mogueleko igogailu parean dagoen espaloian, kotxez beteta egoten delako.	Eskabide hori aztertu ondoren, erabaki da ez jartzea piboterik, izan ere, espaloi gainean jarri beharko lirateke, eta traba dira oinezkoentzat.
Obrak	Eskatu du Legarreko eskailera mekanikoak estaltzea gutxiago hondatzeko.	Ez dago aurreikusita eskailera mekanikoak estaltzea. Eskaera kontutan izango da hauek aldatzen direnerako.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du San Kristobaleko horma ondoko arbolen sasiak eta adar lehorrak garbitzeko, 14 eta 16 zenbakietan.	2019ko urtarrilean garbitu zen leku hori.
Obrak	Galdetu du ea zer egoeratan dagoen Ubitxatik San Kristobalerako igogailua.	Proiektua idazten ari gara, 2020 urtean zehar burutzeko helburuarekin.
HIRIGINTZA	Kexu da Ipuruako futbol-zelaiko obrak direla-eta ingurua zaintzarik gabe dagoelako eta molestiak sortzen direlako.	Ipuruako obrak, bideak hobetzeko lanak ere jasotzen dituen, zalantzarik gabe, ingurunean eragiten du, dudarik gabe, baina eragin horiek minimizatzen saiatzen gara. Eragozpenak sortzen direnean, komeni da Udalarekin harremanetan jartzea lehenbailehen konpontzeko.
Zerbitzuak	Jakinarazi du Santa Ines 8an paperontzi bat apurtuta dagoela.	Aipatutako paperontzia aldatu da dagoeneko, eta berria jarri.

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Ipurua

FECHA: 15/11/2018

Departamento	Extracto	
HIRIGINTZA	Kexu da Ipurua 1 eta 3 pareko txabola-ingurua zikina eta zaindu barik dagoelako.	Zoru partikularra da, eta jabetzari dagokio inguru hori egoera onean mantentzea. Udalak Ipuruako ubidea mantentzen du. Jabetzari ingurua garbitzeko eskatuko zaio.
Obrak	Salatu du ura jausten dela autopistako zubitik Ipuruatik pasatzean, kanalizazioa gaizki dagoelako.	Bidegik konpondu zuen arazoa.
Udaltzaingoa	Kexu da, partidua dagoen egunetan, kotxeak espaloi gainean aparkatzen direlako.	Partida dagoen bakoitzean, gaizki aparkatuta dauden kotxeak kontrolatzen dira, bereziki, espaloi gainean lagatzen dituztenak; eta, salaketak jartzen dira.
Zerbitzuak	Auzotar batek salatu du Mogelego jardinetan hiru pago lehortu daudela eta, belarra mozten dutenean, ez dela ondo geratzen.	Aztertu egin dira e zuhaitzok eta eskatu da kontuan izan dadila kexu hori hurrengo sega-lanetan, batez ere, garbiketari dagokionean. Gainera, lorazaintzaz arduratzen den pertsonak jakinarazi du pago lehortuak ordeztuko direla. Nolanahi ere, sega-lan desegokien arazoa modu puntualean gertatu zen, euria ari zuela eta bustita zegoela egin baitzen eta, hortaz, ezin izan zen garbitu lurra lehor dagoenean egiten den baldintza berberetan. Otsailean, berriz ere garbitu zen lorategia.
Alkatetza	Salatu du nola kudeatu diren Aurrekontu Parte-hartzaileak.	Kontu hau luzatzen ari bada ere, ekintza txiki batzuk egiten hasi dira, batez ere landa-auzoetan. Aurreikusi da zenbait erabaki hartzea, eta espero dugu urtea amaitu baino lehen aurrekontu osoa ekintza zehatzekin kontsignatu ahal izatea

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Ipurua

FECHA: 15/11/2018

Departamento	Extracto	
Obrak	Eskatu du eskailera mekanikoak eraikitzea Juan Gisasola 20 zenbakian.	Ez dago aurreikusita eskailera mekanikorik jartzea, ez delako beharrezkoa ikusten. Oinezkoentzako pasabidea dago inguru horretan.
Zerbitzuak	Kexu da usoak daudelako J.A. Moguelen.	Abisua eman zaio udalerritik usoak erretiratzearen arduradunari.
Udaltzaingoa	Salatu du 8 zenbaitik bolatokira doan bidegurutzea oso arriskutsua dela.	Bidegurutzearen konfigurazioa dela eta, oinezkoen pasabidea gune horretan egin da.
Zerbitzuak	Eskatu du partidak dauden egunetan auzoan eta futbol-zelaiaren inguruan gehiago garbitzea.	Mankomunitateak jakinarazi duenez, partida-egunetan, garbiketa-zerbitzua indartu egiten da Unzagatik Ipuruako futbol-zelairainoko ibilbide osoa egiten duen peoi batekin, dagokion garbiketa eginez. Hala ere, kontu honen jarraipena egingo da.
Udaltzaingoa	Auzokide bat kexu da bi pibote jarri dituztelako San Kristobal 2 zenbakian eta butano-kamioiak, adibidez, ezin duelako aparkatu.	Abisua eman zitzaion Zerbitzu sailari piboteen kokapena aldatu eta arazoa konpontzeko.
Obrak	Auzokide batek gune estali bat eskatu du 0 eta 5 urte arteko umeentzat.	Aurreikusita dago Jazinto Olabeko parkea estaltzea. Datorren urtean idatziko da proiektua.
Alkatetza	Eskatu du Jazinto Olabeko arkupeak zabaltzea umeekin jolasteko, edo Torrekuako anbulatorioko espazioa egokitzea horretarako.	Ipuruako merkatuan haurrentzako jolas gune bat sortzeko proiektua lantzen ari gara.
Alkatetza	Eskatu du umeentzako antzerki-eskolak antolatzea Ipuruako auzoan.	Jazinto Olabeko ludoteka leku egokia izan daiteke horretarako. Iaz, 10 eta 11 urteko umeentzako antzerki-tailer

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Ipurua

FECHA: 15/11/2018

Departamento	Extracto	
		bat egin zen eta oso arrakastatsua izan zen. Izan ere, tailer hori errepikatzea aurreikusita dago, eta baita parte-hartzaileen adina jaitea ere. Halaber, Kultura sailean ekimenak lantzen ari dira antzerkia bultzatzeko Eibarko gunen batzuetan
HIRIGINTZA	Auzokide batek eskatu du Argatxako Jardinetan dagoen lorategian espazio bat hesiz inguratzea, umeen aisialdirako.	Jardines de Argatxa jardinak dituen ingurua da, eta umeek eremu seguruan jolas dezakete, kotxeetatik urrun.
Zerbitzuak	Eskatu du Argatxako Jardinetako lorategitik txakur-kakak jasotzea.	Ikusten denean txakur-jaberen bat bere animalia-aren kakak jasotzen ez dituen, salaketa jartzen da. Gizalege kontu bat da.
Zerbitzuak	Eskatu du Jazinto Olabeko plaza garbitzea.	Mankomunitateak jakinarazi digu gunen hori astean 5 bider garbitzen dela. Dean den, hesiaren ostean dagoen eta giltzaz itxita dagoen gunea 15 egunetan behin garbitzen da.
Zerbitzuak	Kexu da Santa Inesen, Romualdo Galdosen eta Argatxako Jardinetan argiak hondatuta egoten direla.	Otsailean, elektrikariek argiak aztertu zituzten eta jakinarazi zuten ondo zaudela.
Udaltzaingoa	Salatu du aparkaleku asko kendu direla futbol-zelaiko obrak direla-eta.	Beti saiatu dira ahalik eta aparkaleku gutxien kentzen.
Udaltzaingoa	Auzotar bat kexu da partida dagoen egunetan Ertzaintzak garaje-jabeei ez dielako pasatzen uzten garajei.	Segurtasun-protokoloaren barruan, partidu-egunetan ezin da ibilgailurik igaro, baina bakarrik partida hasi baino 15 minutu lehenago eta amaitu eta 15 minutu geroago .

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Ipurua

FECHA: 15/11/2018

Departamento	Extracto	
Udaltzaingoa	Kexu da partidu-egunetan kiroldegi osteko parkinga ixten delako.	Gune hori futbol zelaiko bero-orgak uzteko erabiltzen da (behin zelaiko lanak amaituta, ez dira bertan egongo) eta partidak ikustera doazen pertsona desgaituak aparkatzeko.
Alkatetza	Salatu du kiroldegiko garajearen mantenimendu eskasa.	Garajeak mantenimendu beharrak betetzen ditu. Garbiketa larunbatero egiten da.
Udaltzaingoa	Santa Ines kaleko bizilagunak kexu dira pegoren pareko eskaileren pasabidea ibilgailuen aparkalekuek ixten dutelako.	Santa Ines kaleko ezkerrean baimenduta dago ibilgailuak aparkatzea (landare-hesiaren ondoan). Kale horretan, etxe-blokeen artean dauden eskailerekin bat eginez, oinezkoentzako pasabideak daude eta hortik pasa daiteke (2. zenbakiaren ondoan, 8 eta 10 zenbakien artean, 14 eta 16 zenbakien artean eta 22 zenbakiaren ondoan).
Udaltzaingoa	Makaskuako bizilagun bat kexu da aparkatzeak eragiten dituen arazoengatik; izan ere, jendeak gaizki aparkatzen du eta molestiak eragiten dizkiete garajeei.	Pibote bat jarri zen aparkatzea saihesteko eta, hala, arazoa konpontzeko.
Obrak	Jakinarazi du Egiurentarren inguruko kamioien joan-etorriaren eraginez baldosa batzuk apurtu direla garajera sartzeko espaloian.	Honen konponketa aurreikusita dago.
Udaltzaingoa	Salatu du Makaskua eta Isasi kaleek bat egiten duten lekuaren bisibilitate eskasa, kotxeek bi aldeetan aparkatzen dutelako.	Ispilu bat jarri zen irteera errazteko.
Udaltzaingoa	Kexu da jendeak txiza egiten dutelako garajeen oinezkoen pasabidean.	Jendea ikusten denean txiza egiten bide publikoan salaketa jartzen zaie.

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Ipurua

FECHA: 15/11/2018

Departamento	Extracto	
Obrak	Auzokide batek salatu du hezetasunak daudela Makaskuako plaza azpiko garajeetan.	Jabetzarekin hainbat bilera izan ostean, adostu da hainbat azterketa egingo direla hezetasun horien arrazoiak zeintzuk diren jakiteko.
Zerbitzuak	Jakinarazi du Burgosko Zentroaren irteeran dagoen kutxatila etengabe tratatzen dela eta ura ez duela behar bezain ongi ebakutzen.	Kutxatila hori Mankomunitateak erabiltzen du hodiak sartzeko. Abisua pasatu ondoren, jakinarazi du gune guztia aztertu zela, eta egiaztatu zela beiraren iglua kutxatila gainean zegoela. Edukiontzia lekuz aldatu zen.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Argatxako Jardiñen osteko arbolak kentzea. Esan du egoera txarrean daudela.	Azterketa teknikoa egin ostean, ondorioztatu da egoera onean aurkitzen dela, eta ez duela segurtasun arazorik suposatzen herritarrentzat.